

Euskal Herria
Pays Basque
Basque
Country



Karlos Sánchez Ekiza

Euskal musika klasikoa

La musique classique basque ■ Basque Classical Music



 etxe
pare
EUSKALINSTITUTUA
INSTITUTOVASCO
BASQUEINSTITUTE



Karlos Sánchez Ekiza

Euskal musika klasikoa

La musique classique basque ■ Basque Classical Music

EUSKAL HERRIA
PAÍS VASCO
BASQUE COUNTRY

Euskal Kultura Saila

Collection Culture Basque / Basque Culture Series

- 1 Euskararen historia laburra / Brève histoire de la langue basque / A Brief History of the Basque Language
- 2 XX. mendeko euskal literatura / La littérature basque du XXe siècle / Basque Literature in the Twentieth Century
- 3 Euskal musika klasikoa / La musique classique basque / Basque Classical Music
- 4 Euskal kantagintza: pop, rock, folk / La chanson basque : pop, rock, folk / Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk
- 5 Estanpa bilduma / Collection d'estampes / A Collection of Prints
- 6 Euskal zinema / Le cinéma basque / Basque Cinema
- 7 Arkitektura eta diseinua / Architecture et design / Architecture and Design
- 8 Euskal dantza / La danse basque / Basque Dance
- 9 Bertsolaritza / L'improvisation / Bertsolaritza
- 10 Tradizioak / Les traditions / Traditions
- 11 Euskal sukaldaritzaz / La cuisine basque / On Basque Cuisine
- 12 Euskal antzerkia / Le théâtre basque / Basque Theater

Euskal Kultura Sailaren editorea / Éditrice de la Collection Culture Basque / Basque Culture Series Editor: Mari Jose Olaziregi

© **Testua / Texte / Text:**

Karlos Sánchez Ekiza

© **Euskarazko itzulpena:**

Mixel Murua

© **Traduction française :**

Kattalin Totorika

© **Translation into English:**

Cameron Watson

© **Diseinua / Conception / Design:**

Tiktak multimedia

© **Azala / Couverture / Front Cover**

Euskadiko Orkestra

ISBN: 84-617-2737-1



Frantseseko bertsioa Euskal Kultur Erakundeak finantzatu du

La version française a été financée par l'Institut Culturel Basque

The French version has been funded by the Basque Cultural Institute

Etxepare Euskal Institutua

Institut Basque Etxepare / Etxepare Basque Institute

Prim 7, 1

E- 20006 Donostia / San Sebastián

etxepare@etxepare.net

www.etxepareinstitutua.net

Euskara, jalgi hadi mundura

Euskara, muéstrate al mundo

Euskara, go forth into the world

1545. urtean, Bernart Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehenengo liburua, argitaratu zuenean, desira bat adierazi zuen: “**Euskara, jalgi hadi mundura**”.

Etxepare Euskal Institutuak gure lehenengo idazlearen omenez hartu du izena, eta, haren desira gure izatearen ardatz bilakaturik, euskara eta euskal kultura mundura ateratzea eta zabaltzea du helburutzat.

Batetik, gure eginkizuna euskararen ezaguera sustatzea da eta haren ikasketa bultzatzea esparru akademikoan; eta bestetik, gure sortzailak eta haien adierazpen artistikoak nazioartean ezagutarazten ahalegintzen gara: gure artista plastikoak, musikariak, dantzariak, idazleak, zine-zuzendariak, antzezleak...

Gure hizkuntza eta kultura munduan barrena zabaltzeko ahalegin horretan, liburu-sorta bat sortzea izan da gure lehenengo lanetako bat, horren bidez informazioa emateko euskarari buruz eta gure kultura osatzen eta aberasten duten alor artistiko eta kultural guztiei buruz.

En 1545, lorsque fut publié le premier livre en euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, son auteur, Bernat Etxepare, exprima le vœu suivant : « **Euskara, jalgi hadi mundura** » (Euskara, va de par le monde).

L’Institut Basque Etxepare doit non seulement son nom à ce premier auteur basque, mais il fait également sien son vœu, en se donnant pour mission la promotion et la diffusion de la langue et de la culture basques à travers le monde.

Notre tâche consiste, d’une part, à promouvoir la connaissance de notre langue et à encourager son apprentissage dans la sphère académique. D’autre part, nous nous efforçons de faire découvrir, sur le plan international, les expressions artistiques de nos créateurs, qu’ils soient artistes plasticiens, musiciens, danseurs, écrivains, cinéastes, ou encore acteurs.

L’une de nos premières tâches, au cours de ce processus de diffusion à travers le monde de notre langue et de notre culture, a consisté à créer cette collection, dans le but de fournir des informations sur notre langue, l’euskara, ainsi que sur toutes les disciplines artistiques et culturelles qui constituent la richesse de notre culture.

In 1545 the first book in Euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, was published by Bernart Etxepare, who expressed one wish: **Euskara, jalgi hadi mundura** *Euskara, go forth into the world*.

The Etxepare Basque Institute takes its name from this first Basque author and, moreover, converts his wish in our motto. The Institute’s objective and mission is to promote and diffuse the Basque language and culture throughout the world.

On the one hand, our task is to promote knowledge about our language, and its study in the academic sphere. And on the other, we want to introduce the creative expressions of our artists: visual artists, musicians, dancers, writers, film directors, actors, and so on.

One of the first tasks in the internationalisation of our language and culture has been to create this collection with the aim of informing people about our language, Euskara, and about the artistic and cultural disciplines that make up the wealth of our culture.

Aizpea Goenaga

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria
Directrice de l’Institut Basque Etxepare
Director of the Etxepare Basque Institute

Aurkibidea

Sommaire ■ Index

Sarrera Introduction Introduction	6
Sortzaileak Les compositeurs Composers	8
Interpretatzaileak Les interprètes Artists	30
Azpiegitura L'infrastructure The Infrastructure	62
Bibliografia / Bibliographie / Bibliography	70
Argazkiak / Photographies / Photographs	70
Karlos Sánchez Ekiza	71
CDaren edukia / Contenu CD / CD content	72

Karlos Sánchez Ekiza

Sarrera

Introduction ■ Introduction

Euskaldunen ezaugarrien artean, musikarako gaitasuna da historian zehar gehien nabarmendu izan denetako bat. Bereziki famatua da euskaldunek koru edo abesbatzetan kantatzeko duten zaletasuna; hortik dator esaera ezaguna: “euskaldun bat: txapela; bi euskaldun: pilota-partida; hiru euskaldun: orfeoia”. Euskal abesbatzak entzutetsuak dira nazioartean gaur egun, baina iraganean ere izan ziren interpretatzaile famatuak gure artean: Pablo Sarasate biolin-jotzaile eta konpositorea eta Julian Gaiarre tenorra, esaterako. Era berean, historian izan diren punta-puntako konpositoreen artean, bada bat euskalduna: Maurice Ravel. Eta gaur egun ere badira musika-konposizioan izen handiko euskaldunak: Luis de Pablo eta Agustin Gonzalez Azilu, esaterako, ezaunetak aipatzearren.

Hala ere, aitortu behar da munduko ia herri guztiei buruz esaten dela gauza bera, musikarako berezko gaitasuna dutela, alegia. Nolanahi ere, musika *klasikoa* –musika eruditua edo akademikoa– deritzogunaren ildo nagusiek ez dute Euskal Herrian eragin handirik izan historikoki. Horrek ez du esan nahi, ordea, gure herri txikiak musikaren alorrean bide interesgarriak egin ez duenik. Nazioartean izan dira, punta-puntako musikarien artean, euskaldunak, nahiz eta modu ofizialean leku askotan agertzen ez diren; eta gaur egun ere badira, bai konposizioan eta baita interpretazioan ere.

Liburu honetan, musika-jardueraren errepassoa egiten saiatuko gara, uste osoa baitugu musika, arlo *klasikoan*, *erudituan* edo *akademikoan*, garrantzi handiko elementua dela gaur egungo euskal kulturaren barruan.

L'une des qualités le plus souvent associées aux Basques, tout au long de leur histoire, est sans nul doute leur talent pour la musique. Leur goût pour le chant choral, particulièrement réputé, s'exprime dans cette célèbre maxime : « un Basque, un béret ; deux Basques, une partie de pelote ; trois Basques, une chorale ». Les chœurs basques, en effet, continuent à bénéficier d'une renommée internationale, assez similaire à celle qu'ont encore aujourd'hui des artistes du passé, notamment le violoniste et compositeur Pablo Sarasate, et le ténor Julian Gaiarre. L'un des plus grands compositeurs de tous les temps, Maurice Ravel, était Basque lui aussi, tout comme quelques-uns des noms les plus prestigieux de la composition contemporaine, avec pour chefs de file Luis de Pablo et Agustin Gonzalez Azilu.

Il faut avouer, cependant, que rares sont les peuples dans le monde dont on n'ait vanté pareillement le talent inné pour la musique. Il est également vrai que les principaux courants de ce que l'on a coutume de désigner par le terme de musique *classique*, qui n'est autre que la musique érudite occidentale, ne sont pas précisément passés par le Pays Basque. Cela ne signifie pas pour autant que ce petit peuple n'ait pas eu un parcours digne d'intérêt, avec tout au long de son histoire – une histoire qui, officiellement, passe par trop peu de lieux –, des figures internationales de premier plan, et aujourd'hui encore, sur le plan de la composition et de l'interprétation.

Dans cet ouvrage, nous allons tenter de dresser un panorama de cette activité musicale, convaincus que nous sommes que la musique, qu'elle soit *classique*, *érudite* ou *académique*, est un élément-clé de la réalité culturelle du Pays Basque.

One of the qualities that have been most associated with Basques through history is their musical ability. Especially important has been their choral dimension, as expressed in the saying “one Basque, one beret; two, a game of *pelota*; three, a choral society.” Indeed, the international prestige enjoyed by Basque choirs today is, in effect, no different to that of interpreters during past eras, such as the violinist and composer Pablo Sarasate or the tenor Julian Gaiarre. One of the greatest composers of all time, Maurice Ravel, was also Basque as are some of the most prestigious names in contemporary composition, led by Luis de Pablo and Agustin Gonzalez Azilu.

It is also true, however, that there are few people in the world who have not also been described in these terms, as possessing an innate ability for music. And it is equally true that the main currents of so-called classical music, erudite music or the Western academy have not been centred historically in the Basque Country. Having said that, this does not mean that this small people have not had an interesting past, with certain major international figures both throughout their history – a history that has been officially recorded in far too few places – and today in terms of both composers and performers.

Throughout this work I will attempt to summarise this activity, contending that music –whether classical, erudite or academic– is a key element of contemporary cultural activity in the Basque Country.

Sortzaileak

Los creadores

Composers

Mendebaldeko musika eruditua ez da herrialde askotan landu Historian barrena. Erdi Aroan, Frantzia izan zen herrialderik pribilegiatuena, eta gugandiko hurbiltasunak euskal orbitan jarri zituen orduko musikagile handienetako batzuk –bereziki XIII. mendetik aurrera, Nafarroako tronua Frantziako dinastien mendean geratu zenean–. Musikagile haien artean ezagunena Nafarroako Teobaldo I.a da, Champagneko kondea eta Nafarroako lehenengo errege frantsesa; “Trobalaria” deitzen zioten ezizenez, eta trobalarien mugimenduaren ordezkari nagusietako bat dela kontsideratzen da gaur egun. Haren doinu asko, ia berrogeita hamar, gorde dira bostehun bertsio baino gehiagoetan, eta kopuru hori zinez harrigarria da garai hartarako. Guillaume de Machaut da Nafarroarekin lotzen den beste musikagile handi bat; Erdi Aroko konpositore garrantzitsuena da askoren ustean, eta Nafarroako Karlos II.aren gorteko musikagilea izan zen.

XVI. mende hasieran, Nafarroako erreinua desgertzean, herrialdearen hegoaldea Hispaniako giro musikalean murgildu zen, eta horrek ondorio nabarmenak ekarri zituen. XV. mendearen amaieratik XVI. mendearen hasierara bitartean ezinbestekoa da Juan Antxieta polifonista azpeitiarra aipatzea, Gaztelako errege-kaperetan hainbat kargu izan zituena Karlos I.aren garaira arte. XVII. mendetik aurrera, Penintsulako musika Europako korrante nagusietatik kanpo geratu zen, eta euskal musikagileak ez ziren Espainiako mugetatik harago heldu, nahiz eta tartean maila handiko sortzaileak izan ziren, XVIII. mendean batez ere; esaterako, Juan Frances Iribarren, erlijio-musikan; Blas de Laserna, tonadilla eszenikoan, edo Joakin Oxinaga eta Sebastian Albero, teklatuko musikan. Hala ere, bitxia egiten da ikustea garai hartan euskal zantzuak ageri direla zenbait lanen tituluetan zein azpituduetan, bereziki musikagile frantsesen obren artean; nolana ere, beste hainbat naziotan antzeko adierazpenekin gertatzen den bezala, zaila da gaur egun euskal musikarekin erlazionatzen dugun ezaugarriak aurkitzea haietan.



Tronpeta-, flauta- eta danbor-jotzaileak. Iruñeko katedraleko kapitela / Joueurs de trompette, flûte et tambour. Chapiteau de la Cathédrale de Pampelune / Trumpeters, flute players and drummers. Capital in the Cathedral of Iruñea-Pamplona.

Comme nous l'avons indiqué dans notre introduction, l'histoire de la musique érudite occidentale s'est déroulée dans un nombre très restreint de pays. Au Moyen-Âge, le lieu privilégié pour la musique est la France, dont la proximité avec notre région – particulièrement à partir du XIII^e siècle, lorsque le trône de Navarre est occupé par les dynasties françaises – conduit certains des compositeurs les plus remarquables de l'époque dans l'orbite basque. C'est le cas du premier roi français de Navarre, Thibaud de Champagne, qui sous le nom de Thibaud I^{er} de Navarre est considéré aujourd'hui comme l'un des représentants les plus notables du mouvement troubadouresque. De son œuvre on conserve une cinquantaine de mélodies dans plus de cinq cents versions, fait exceptionnel dans le panorama de l'époque. Autre figure en lien avec la Navarre, celle de Guillaume de Machaut, sans doute le compositeur le plus important de toute cette période médiévale, qui fut compositeur à la Cour de Charles II de Navarre.

Après la chute du Royaume de Navarre au début du XVI^e siècle, la partie méridionale du pays s'imprègne de l'atmosphère musicale hispanique, avec tout ce que cela suppose. À cheval sur les XV^e et XVI^e siècles, la figure du polyphoniste Juan Antxieta, natif d'Azpeitia, qui occupa diverses fonctions dans les chapelles royales castillanes jusqu'à l'époque de Charles I^{er}, est incontournable. À partir du XVII^e siècle, la musique

The history of western classical music has been played out in very few countries. In the Middle Ages, it was centred in France, whose proximity—especially from the thirteenth century on when the Kingdom of Nafarroa was occupied by several French dynasties—led to the most outstanding composers of the era spending time in the Basque region. This was the case during the reign of the first French monarch in Nafarroa, Theobold I of Champagne (known today as Theobold I of Nafarroa), one of the most prominent representatives of the troubadour movement. We still have fifty of his melodies today arranged in more than three hundred versions, an exceptional amount for the era. Another figure associated with Nafarroa was arguably the most important composer in the Middle Ages: Guillaume de Machaut, court composer to Charles II of Nafarroa.

Following the fall of the Kingdom of Nafarroa at the beginning of the sixteenth century, Hispanic musical influence (with all that this entailed) became more important in the southern part of the Basque Country. One Basque figure spanning the fifteenth and sixteenth centuries, for example, was the polyphonist Juan Antxieta, who occupied various positions in Castilian royal chapels through to the reign of Charles I (and Charles V, Holy Roman Emperor). From the seventeenth century onwards, music in the Iberian Peninsula remained detached from fashionable Europe—



Bilboko Arriaga antzokia / Théâtre Arriaga à Bilbao /
The Arriaga Theatre in Bilbao.

Ilustrazioaren mugimenduarekin hasi zen aldatzen pixkanaka musika-giroa Euskal Herrian, eta Europako erodei –bereziki Frantziakoei– jarraitu zitzairen hemen, musika modernizazio-bidean jartzeko ahaleginean. “Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte” izan zen mugimendu haren oinarria; lan handia egin zuen musikaren arloan, nahiz eta erlijioaren esparrutik kanpo jarduteagatik aurkako jarrera ugari izan zuen. Gau-ekitaldiak eskaini ohi zituen, zaleentzako emanaldi erdi-publikoak eta operak ere bai. Gaur egun elitistatzen joko gureen giro hartan jaio zen Juan Crisostomo Arriaga musikagilea, hamaika urterekin idatzi zuena bere lehenbiziko musika-lana. Hamabost urterekin, garai hartarako erabaki ezohikoa bezain arriskutsua hartuz, Parisera joan zen musika ikastera; onartu egin zuten hango kontserbatorioan, eta bertan irakasle izatera ere heldu zen. Hogei urte bete baino egun batzuk lehenago hil zen, eta haren heriotza goiztiarrarekin maisu handi bat izan zitekeena galdu zuen euskal musikak. Gaur egun ere Arriagaren sinfonia bakarra, hiru hari-kuartetoak eta *Los Esclavos felices* operaren obertura sarritan agertzen dira nazioarteko kontzertuen programetan. Arriagak eman dio izena ia mende oso batez Bilboko musika erudituen bihotza izan den antzokiari.

XVIII. mendearen amaieran, Madrilgo musika-giroan murgilduta zeuden beste bi musikagile handi aipatu behar dira: Blas de Laserna, tonadilla eszenikoaren maisua, eta, batez ere, Hilarion Eslaba, Espainiako musikan mugarri izan zena, berak eman baitzituen lehenengo urratsak erlijio-giroko musikatik musika profanorako trantsizioan. Hilarion Eslabak Sevillako katedraleko kapera-maisu kargua utzi eta Espainiako hiriburura joatea erabaki zuen, gutxiago irabaziz lan egin behar izan bazuen ere. Madrilen, musika-kontserbatorioko zuzendari postua lortu zuelarik, erakunde hori berrantolatu zuen, denbora luzean iraun zuen egitura sendoa sortuz. Bestetik, gogoratu behar da Hilarion Eslabak sortu zuen solfeo-metodoa erreferente bat izan dela, mende oso bat baino

dans la péninsule demeure isolée des courants européens en vogue, avec pour conséquence le fait que des compositeurs du XVIII^e siècle de la dimension de Juan Frances Iribarren dans le registre de la musique religieuse, Blas de Laserna dans celui des « *tonadillas* », opéras-comiques, ou encore Joakin Oxinaga et Sebastian Albero, dans le registre de la musique de clavier, ne franchissent pas les frontières du territoire hispanique. Curieusement, au cours de ces mêmes siècles, et tout particulièrement chez les compositeurs français de cette période, apparaît toute une série de pièces dont les titres ou les sous-titres font référence de manière spécifique à ce qui est basque. Cependant, comme cela s'est également produit dans d'autres nations avec des expressions artistiques similaires, il est difficile pour nous d'y déceler une quelconque caractéristique que nous associerions aujourd'hui à la musique basque.

La musique au Pays Basque évolue progressivement avec le mouvement des Lumières, en quête d'une modernisation basée sur des modèles européens, plus particulièrement français. La *Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* (Société Royale Basque des Amis du Pays), également connue sous le nom de « *Bascongada* », base de ce mouvement des Lumières au Pays Basque, s'attache à développer, non sans se heurter à certaines oppositions, une activité musicale dissociée de la religion avec des veillées, des interventions de musiciens amateurs semi-publics et même des représentations d'opéra. C'est de ce milieu que nous considérerions aujourd'hui comme élitiste, qu'émerge la figure de Juan Crisostomo Arriaga, qui compose sa première œuvre musicale à l'âge de onze ans. À quinze ans, il prend la décision, à la fois risquée et inhabituelle pour l'époque, de se rendre à Paris où il est admis au Conservatoire dont il deviendra l'un des professeurs. Sa mort prématurée, à l'âge de dix-neuf ans, prive définitivement la musique basque d'une figure exceptionnelle. Encore aujourd'hui, son unique symphonie, ses trois quatuors à cordes et l'ouverture de son opéra *Los esclavos felices* (Les esclaves heureux) sont des pièces

an trends. As a result, important eighteenth-century Basque composers like Juan Frances Iribarren (religious music), Blas de Laserna (*tonadilla* or musical comedy), Joakin Oxinaga and Sebastian Albero (both keyboard music) remained within the Hispanic milieu. Curiously, however, at the same time a number of French composers included Basque references in the titles or subtitles of their works; although listening to these compositions today (as is also the case when considering references to other nations in similar pieces of the era), it is difficult to appreciate any specifically Basque influence in the music.

The musical environment in the Basque Country began to change slowly with the Enlightenment. The Real Sociedad Bascongada de Amigos del País (Royal Basque Society of the Friends of the Country) –also known as the “*Bascongada*” and the foundation of the Enlightenment movement in the Basque Country– was extremely active in disassociating, not without opposition, music from religion. The Bascongada sponsored soirees, semi-public performances by aficionados and even operatic depictions. We consider such attitudes elitist today, but it was out of this environment that Juan Crisostomo Arriaga—who composed his first musical piece when he was eleven years old—emerged. At the age of fifteen, he took the bold and unusual step for the time of moving to Paris, where he was admitted to the Conservatory there and eventually ended up teaching at the institution. His premature death, however, before the age of twenty deprived Basque music of an exceptional figure. Even today his one symphony, three string quartets and operatic overture *Los esclavos felices* (The Happy Slaves) are routinely performed at international concerts. Moreover, Arriaga gave his name to what has, for almost a century, been the centre of classical music in Bilbao: the Arriaga Theatre.

Other late eighteenth-century Basque figures of note established in the musical world of Madrid were the maestro of tonadilla Blas de Laserna and, especially,



Béla Bartók Errenterian, garaiko euskal musikari aipagarrienetako zenbaitekin / Bela Bartok à Renteria, en compagnie de quelques musiciens basques parmi les plus éminents de l'époque / Béla Bartók in Errenteria, with several of the most prominent figures in Basque music at that time.

gehiago iraun baitu, eta Espainiako eta Hego Amerikako belaunaldi askorentzat gidaliburua izan baita musikan lehenengo urratsak emateko.

Hilarion Eslabak italieraz konposatu zituen operak hasieran; musika-genero horretan eta zarzuelan lan egin zuen batez ere, garai hartako beste musikagile nafar batzuek bezala; Emilio Arrieta, *Marina* obraren egilea, eta Joakin Gaztanbide dira horien artean aipagarrienak. XIX. mendearen amaieran, ordea, Europako leku askotan *eskola nazionalistak* sortu ziren musika erudituen barnean, herri bakoitzaren musika-tradizioei tokia egitea helburutzat harturik. Garai hartan *nazio-izaera* hartu zuten herri-musika horietako elementu jakin batzuek. Euskal musikaren kasuan, bi izan ziren elementu horiek: *zortzikoak*—Jose Maria Iparragirreraren eskutik musika erudituan ederki uztartzen den erritmo asimetriko gisa identifikatzen

dena— eta, askoz ere maila apalagoan, *jota*. Jotak eta zortzikoak ugariak dira, esate baterako, Pablo Sarasate iruindarraren konposizioko musika-lanetan, eta gogoratu behar da bera izan zela garai hartako biolin-jotzailerik bertuosoen eta handiena.

Euskal eskola *nazionalistaren* eskutik etorri ziren, zalantzarik gabe, Euskal Herrian musikak izan dituen une distiratsuenetako batzuk. Europako beste toki askotan bezala, hemen ere opera nazionala egiten saiatu ziren, eta euskaraz egiten ahalegindu ziren, gainera. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira Jose Maria Usandizagaren *Mendi-Mendiyan* opera, 1910ean jendaurrean aurkeztu zena, eta, batez ere, Jesus Guridiren *Amaya*, 1920an estreinatua. Alabaina, gaztelaniaz egiten ziren zarzuelek egundoko arrakasta izan zuten herritarren artean, eta horrek itzalpean utzi zuen opera nazionala euskaraz egiteko

fréquemment interprétées dans les concerts internationaux. En outre, Arriaga a donné son nom à ce qui fut, pendant près d'un siècle, le centre de la musique érudite de Bilbao : le Théâtre Arriaga.

Deux autres personnages, bien établis dans le monde musical madrilène, constituent des figures remarquables de la fin du XVIII^e siècle : Blas de Laserna, maître de l'opéra-comique, et surtout, l'artiste qui, en Espagne, a fait passer la musique de l'usage religieux au registre profane, Hilarion Eslaba. Ce dernier décide d'abandonner sa charge de maître de chapelle à la Cathédrale de Séville pour d'autres fonctions, au début beaucoup moins bien rémunérées dans la capitale espagnole. Il obtient le poste de directeur du Conservatoire de Musique, qu'il réorganise en lui donnant une structure aussi pérenne que sa Méthode de Solfège, grâce à laquelle des générations entières d'Espagnols et de Sud-Américains se sont initiés à la musique.

Compositeur d'opéras en italien, il est en concurrence, dans ce domaine comme dans celui de la *zarzuela*, avec d'autres compositeurs navarrais de son temps, comme Emilio Arrieta, auteur de *Marina*, ou encore Joaquín Gaztanbide. À la fin du XIX^e siècle, cependant, apparaissent dans une grande partie de l'Europe, ce que l'on appelle les *écoles nationalistes*, qui cherchent à intégrer les musiques traditionnelles de chaque peuple dans la musique érudite. C'est également l'époque au cours de laquelle certains éléments de ces musiques acquièrent un statut national. Dans le cas du Pays Basque, ces éléments sont au nombre de deux : le *zortziko*, identifié grâce à Jose Maria Iparragirre, à un rythme assymétrique qui cadre parfaitement dans la musique érudite ; et dans une moindre mesure, la *jota*. *Jota* et *zortziko*, par exemple, sont très présents dans les compositions du grand violoniste virtuose de l'époque, Pablo Sarasate, originaire de Pampelune.

L'école *nationaliste* va offrir à la musique basque, sans conteste, certains de ses plus beaux moments. Comme dans beaucoup d'autres lieux en Europe, les efforts se concentrent essentiellement sur l'élaboration d'un



the person that most defined the transition of Spanish music from religious use to secular patronage, Hilarion Eslaba. The latter decided to abandon his post as Kapellmeister in Seville Cathedral for other less well remunerated positions in the Spanish capital, where he ultimately became director of the music conservatory. He reorganised this conservatory, imparting it a structure almost as strict as his sol-fa method with which entire generations of Spaniards and South Americans have begun in music.

A composer of operas in Italian, he competed both in this field and in that of the *zarzuela* with other composers from Nafarroa of his era, such as Emilio Arrieta (composer of *Marina*) and Joaquín Gaztanbide. At the close of the nineteenth century, however, so-called *nationalist schools* emerged all over Europe which sought to incorporate the musical traditions of each nation into classical music. It was at this time too that certain elements of these musical traditions acquired a national status. In the Basque case, these elements would be the *zortziko*, which was identified—through Jose Maria Iparragirre—with an asymmetric rhythm that fit classical music perfectly; and, to

Aipamen berezia merezi du aita Donostiak, berez Jose Antonio Zulaika izena zuenak. Euskal musika tradizionalaren ikertzaile handienetako bat izan zen, Azkuerekin batera, musikagile bikaina izateaz gainera.



egitasmoa. Zarzueletan euskal nekazarien bizimodua idealizaturik irudikatzen zen, Txomin Agirrerren literatur lanetan egiten zen legez. Halakoak dira, adibidez, Azkueren zarzuelak; baina, guztien gainera, bi obra gailentzen dira: *Las golondrinas*, Usandizagarena, eta Guridiren *El caserío*, herritarren artean arrakastarik handiena lortu duen lana; bi zarzuela horiek ohikoak dira gaur egun ere genero horretako erreperorioan. Pablo Sorozabal donostiarrak ere arrakasta handia lortu zuen Madrilen bere obra batzuekin; *Katiuska*, *La del manojo de rosas* eta *La tabernera del puerto* dira ezagunenak.

Aipamen berezia merezi du aita Donostiak, berez Jose Antonio Zulaika izena zuenak. Euskal musika tradizionalaren ikertzaile handienetako bat izan zen, Azkuerekin batera, musikagile bikaina izateaz gainera. Nabaria da inpresionismoak aita Donostiarengan izan zuen eragina, hala pianorako lan laburretan nola lied-etan, eta hori gaztetan izan zuen heziketa frantsesaren ondorio da –aurreko sortzaileek alemana izan zuten.

Konpositore handien zerrenda honetan, hala ere, euskal musikari bat nabarmentzen da guztien gainera, nazioartean ezagunena dena: Maurice Ravel lapurtarra, Ziburuko semea. Aita suitzarra zuen, eta hiru hilabete besterik ez zituela Parisera eraman zuten Maurice, familia hara aldatu zelako; hala ere, berak beti izan zuen euskalduntzat bere burua. Heziketa guztiz frantsesa jaso zuen, eta, horren eraginez, giro desberdina erantsi zien bere lanei. Musikagile gisa, guztiz bestelakoa da Ravel ikusi berri ditugun gainerako konpositore guztien aldean; eklektizismoa nagusitzen da haren obran: batetik Claude Debussyren musika inpresionista frantsesaren eragina jaso zuen, baina, aldi berean, Frantziako eta Espainiako antzinako musika-iturrietatik ere edan zuen; Erru-

Guridiren *Amaya* CDaren azala, Naxos diskoetxeak argitaratua / Couverture du CD *Amaya* de Guriidi, édité par la maison de disques Naxos / CD Cover of Guriidi's *Amaya*, Naxos label.

opéra national, dans ce cas précis en langue basque. De ce point de vue, il convient de mentionner l'œuvre *Mendi-Mendiyan*, de Jose Maria Usandizaga, présenté pour la première fois devant un public en 1910, et surtout, *Amaya*, œuvre composée par Jesus Guridi, dont la première a lieu en 1920. Mais ce projet se voit éclipsé par la popularité de la *zarzuela* donnée en espagnol, qui offre une représentation idéalisée de la vie rurale basque, semblable à celle qui se dégage des travaux littéraires de Txomin Agirre. C'est le cas des *zarzuelas* d'Azkue, mais surtout de deux œuvres fréquemment interprétées et qui font partie, encore aujourd'hui, du répertoire du genre : *Las golondrinas* (Les hirondelles) de Jose Maria Usandizaga et *El caserío* (La ferme), l'œuvre de Guridi qui a rencontré le plus grand succès populaire. Dans le même temps, à Madrid, l'un des triomphateurs de ce genre est Pablo Sorozabal, de Donostia/Saint-Sébastien, avec des titres comme *Katiuska*, *La del manojo de rosas* (La jeune fille au bouquet de roses) ou encore *La tabernera del puerto* (La tavernière du port).

Jose Antonio Zulaika, plus connu sous son nom religieux de Aita Donostia (Père Donostia), mérite une mention particulière. Celui qui, avec Azkue, demeure comme l'un des grands investigateurs de la musique traditionnelle basque, est également un remarquable compositeur, dont la formation française – différente de la formation allemande de ceux que nous avons mentionnés précédemment – est reconnaissable dans l'influence qu'exerce sur lui l'impressionnisme, tant dans ses pièces courtes pour piano, que dans ses lieder. Dans cette longue liste de brillants compositeurs, un musicien basque, connu dans le monde entier, se distingue pourtant de tous les autres : il s'agit de Maurice Ravel, né dans la localité labourdine de Ciboure. Son père est Suisse et, alors qu'il n'a que trois ans, sa famille déménage à Paris. Pourtant, toute sa vie Ravel va se considérer comme Basque. Sa formation intégralement française lui apporte, bien évidemment, une dimension qui le différencie de tous les autres compositeurs de l'époque énumérés jusqu'ici, et qui

a much lesser extent, the jota. There are plenty of jotas and zortzikos, for example, in compositions by the great violin virtuoso of the era, Pablo Sarasate from Iruñea (Pamplona).

Some of the most brilliant examples of this art in the Basque Country unquestionably emerged out of the Basque nationalist school. As in many other areas of Europe, much effort was given over to creating a national opera, in this case in the Basque language. In this regard, two works of note were *Mendi-Mendiyan* (Up on the mountain) by Jose Maria Usandizaga and premiered in 1910; and especially *Amaya* by Jesus Guridi, which premiered in 1920. This project was, however, eclipsed by the popularity of zarzuela in Spanish, which recreated a bucolic and idealised take on Basque rural life in the same way as the literary works of Txomin Agirre. This was the case of Azkue's zarzuelas, but even more so in terms of two frequent works that are still part of the repertoire today: *Las golondrinas* (The swallows) by Usandizaga and Guridi's most popular work, *El caserío* (The farmhouse). At the same time, in Madrid one of the most successful exponents of this genre was Pablo Sorozabal from Donostia, with works such as *Katiuska*, *La del manojo de rosas* (She of the bunch of roses) and *La tabernera del Puerto* (The barmaid of the port).

Jose Antonio Zulaika, better known by his religious epithet Aita Donostia (Father Donostia), deserves special mention. One of the great scholars, together with Azkue, of traditional Basque music, he was also a composer whose French education – different to the German education of those previously mentioned – is apparent because of the influence Impressionism has in his work, whether in short piano pieces or lieder.

Out of all these distinguished composers, however, one stands out completely as the best-known representative of Basque music in the world: Maurice Ravel, born in Ziburu (Lapurdi). Although his father was Swiss and the family moved to Paris when he was



Maurice Ravel

siako musikak ere oihartzuna du haren obran, garai hartan musikagile eta ballet errusiarrek entzute handia zutenez, eta jazz-aren aireak ere baditu; hori nabarmena da *La Valse* eta *Pavane pour une infante défunte* obretan, adibidez.

Ravelek gaitasun paregabea zeukan orkestratzeko, eta horren adierazgarri dira *Bolero* ospetsua eta Mussorgskiren *Erakusketa bateko margolanak* konposizioaren orkestrarako bertsio famatua; ziur aski, Ravelen bertsioarengatik izan ez balitz, ia ezezaguna izango zen maisu errusiarren pianorako jatorrizko bertsioa. Ravelen beste pieza famatu bat *Ezker eskuarentzako kontzertua* da; I. Mundu Gerran eskuin-eskua galdu zuen Paul Wittgenstein pianista austriarraren omenez konposatu zuen, beste musikagile askok egin zuten moduan –Ravelek itzalpean utzi zituen beste guztiak, ordea.

Ravel euskal gaien inguruan musika-piezak konposatzen saiatu zen, eta pianorako eta orkestrarako bere kontzertu bati *Zazpiak-bat* izena ipintzekotan zen hasieran, zazpi euskal herrialdeen batasunari erreferentzia eginez. Bere izaera eklektikoak, ordea, lan-ildo horretatik urrundu zuen; izan ere, esparru akademikora eramanez gero, herri-doinuek beren izaera, indarra eta xarma galtzen dituztela uste zuen Ravelek.

Musika indartsu garatzen ari zenaldi hartan, baina justu orduan Espainiako gerra zibila piztu zen hegoaldean eta II. Mundu Gerra iparraldean, eta bi gerrateek erabat eten zuten ordura arte egiten ari zen lan aparta. Hegoaldean, musikari garrantzitsuek atzerrira ihes egin behar izan zuten, nahiz eta gerra bukatutakoan gehienak pixkanaka itzultzen hasi ziren. Haustura traumatiko horren ondorioak agerikoak dira zenbaitetan; Sorozabalen kasuan, esaterako, Madrilgo Orkestra Sinfonikoaren zuzendari postua bertan behera utzi behar izan baitzuen. Beste batzuetan, berriz, zailagoa da musikagileen jarraipena egitea; Fernando Remacharen arrastoa galdu egiten da, adibidez, luzaroan utzi baitzion konposatzeari gerraren ondorioz.

Ravelen obren grabazioak biltzen dituen diskoaren azala / Macaron d'un disque comportant des enregistrements d'œuvres de Ravel / Record Sleeve with Recordings of Ravel's Works

contribue à l'éclectisme qui se manifestera dans son œuvre : il est influencé par la musique impressionniste française de Claude Debussy, et puise aux sources de la musique ancienne française et espagnole. La musique russe également trouve un écho dans ses œuvres – à une période où les compositeurs et les ballets de cette nationalité sont très appréciés –, et l'influence du jazz se retrouve dans des pièces comme *La Valse* ou *Pavane pour une infante défunte*.

Ses talents d'orchestrateur sont pour beaucoup dans l'immense succès du *Boléro*, et de la version orchestrale de *Tableaux d'une exposition* de Moussorgsky, dont la version originale pour piano du maître russe serait sans doute restée inconnue si elle n'avait pas bénéficié d'une telle orchestration. L'autre œuvre extrêmement connue de Ravel est son *Concerto pour la main gauche*, composé – tout comme d'autres œuvres, éclipsées par celle de Ravel – en l'honneur du pianiste autrichien Paul Wittgenstein, qui perdit le bras droit au cours de la Première Guerre mondiale.

Ravel compose des pièces sur des thématiques basques et envisage même d'intituler l'un de ses concertos pour piano *Zazpiak-bat* (Sept font un), allusion à l'unité des sept territoires historiques basques. Toutefois, son caractère éclectique l'empêche de se focaliser sur cette seule facette de son travail, et il reste convaincu que les mélodies populaires perdent leur essence et leur charme quand elles revêtent la parure de la musique académique.

Alors que la musique basque est en plein développement, la guerre civile espagnole, dans la partie méridionale du pays, et la Deuxième Guerre mondiale, dans le nord, provoquent une rupture brutale. Au sud, la plupart des figures importantes du monde de la musique sont contraintes de fuir le pays, mais la majorité d'entre elles reviendra progressivement. Les conséquences de cette rupture traumatisante sont parfois évidentes, comme dans le cas de Sorozabal, contraint d'abandonner son poste de directeur de l'Orchestre Symphonique de Madrid. Il s'avère plus difficile de



three years old, Ravel considered himself Basque all his life. His completely French training gave him, of course, a dimension that differed from all the other composers of the era just listed here. It also contributed to an eclectic mix of influences on him, from the so-called French musical Impressionism of Debussy to ancient French and Spanish music, as well as a Russian musical influence – just at a time when Russian music and ballet were especially important – and even jazz, in works like *La Valse* (The Waltz) and *Pavane pour une infante défunte* (Pavane for a Dead Princess).

His ability as a superb orchestrator also made both his *Bolero* and the orchestral version of Mussorgsky's *Pictures at an Exhibition* extremely famous; and without which the original version of the latter, for the piano by the Russian maestro, would almost have been unknown. Another very-well known work of Ravel's, *Concerto pour la main gauche* (Concert for the Left Hand), was composed – like several others which he eclipsed – in honour of the Austrian pianist Paul Wittgenstein, who had lost his right arm in the First World War.

Ravel composed Basque-themed pieces and he even thought of calling his *Concert for Piano and Orchestra* by the title *Zazpiak-bat* (The seven are one) – an allusion to the unity of the seven Basque territories.



Emiliana Zubeldia



Gerraosteko lehenengo urteak zailak izan ziren benetan musika arloan ere: ez zegoen baliabiderik, etengabe tartekatzen ziren arazo politikoak kulturajardunetan, eta, hasieran bereziki, erregimen autoritarioek izan ohi duten estetika iluna nagusitu zen arte-adierazpide guztietan. Gerraostean, Espainiak atzerriko eragin guztiei ateak itxi zizkien, eta, barneko giro ilun kontinuitan murgildurik, abangoardiaren aurka egin zuen. Egoera hartan, Jesus Guridi funtsezko musikagilea izan zen, Madrilgo Kontserbatorioan lan bikaina egin baitzuen irakasle gisa. Horrez gainera, Musikako Sari Nazionala irabazi zuen *Diez melodías vascas* lanari esker. Konposizio horren orkestratze aparta Rimski-Korsakoven edo Ravelen parekoa da, eta nazioarteko orkestren erreperitorioaren parte da gaur egun.

Artean ere garrantzi handia zeukan musika erlijiosoak Euskal Herrian, eta garai hartan erbestean ziren euskal nazionalismoarekin erlazioatutako hainbat eta hainbat pertsonaren itzulera errazteko balio izan zuten erlijio-sentimenduek. Ildo horretan, aipatzekoa da Nemesio Otaño jesuitaren itzala, gerraosteko lehenengo urteetan musikaren esparruan kargu garrantzitsuak izan zituena erregimen frankistan. Aita Madinak ere lan handia egin zuen; honek hizkuntza berritzaileagoa zerabilen, eta, eliz musika arautzen zuen *Motu Proprio* edo kode juridikoaren ildoei jarraituz, ahaleginak egin zituen testuaren ulergarritasuna zaintzeko eta musika-tresnen erabilera mugatzeko. Gerra-garaian gazteagoak ziren musikariek eskura zituzten baliabide urriekin lan egin behar izan zuten diktaduraren urte ilunetan. Hori izan zen Fernando Remacharen kasua, zeina denbora luzez Iruñeko Kontserbatorioan zuzendari izan baitzen. Eta berdin esan liteke Francisco Escuderoni buruz ere; honek, hala ere, obra handiagoak sortu zituen: horien ar-

Karmelo Bernaolaren lanak biltzen dituen diskoa.

Disque d'œuvres de Carmelo Bernaola.

Record with Works by Carmelo Bernaola.

suivre certains musiciens, comme Fernando Remacha, dont on perd la trace à partir du moment où il cesse de composer, du fait de la guerre.

Les premières années de l'après-guerre représentent forcément une époque très compliquée, marquée par une absence totale de ressources, avec des problèmes politiques incessants et, tout particulièrement au début, avec une esthétique propre aux régimes autoritaires. Depuis la fin de la Deuxième Guerre mondiale, l'Espagne s'est complètement isolée du monde extérieur et repliée dans une atmosphère conservatrice, hostile aux avant-gardes. Dans ce contexte, Jesus Guridi, professeur au Conservatoire de Madrid, devient une figure déterminante et obtient un prix national de Musique avec ses *Diez melodías vascas* (Dix mélodies basques) dont la brillante orchestration n'a rien à envier à celles de Rimsky-Korsakov ou de Ravel. Cette œuvre est d'ailleurs toujours interprétée aujourd'hui et fait partie du répertoire international de musique pour orchestre.

La musique religieuse est toujours prépondérante à cette époque, d'autant que les sentiments religieux contribuent à faciliter le retour d'exil de nombre de personnes liées au nationalisme basque. À ce propos, il convient d'évoquer la figure du jésuite Nemesio Otaño, qui occupe plusieurs postes musicaux importants sous le régime franquiste, durant les premières années de l'après-guerre, et celle du père Medina, au langage plus novateur, qui suit les directives papales du *Motu Proprio* (« de son propre chef »), à savoir soigner l'intelligibilité du texte et limiter l'usage des instruments.

Les musiciens plus jeunes qui émergent au moment de la guerre doivent faire face à l'absence cruelle de moyens à leur disposition. C'est le cas de Fernando Remacha, qui demeure longtemps à la direction du Conservatoire de Pampelune, et aussi de Francisco Escudero qui entreprend pourtant des œuvres de plus grande envergure, parmi lesquelles son opéra *Zigor*, dont la première a lieu à la fin des années 1960. La compositrice Emiliana de Zubeldia, en revanche, est restée méconnue jusqu'à une date récente. En 1937,


However, his eclectic nature prevented him from concentrating on this aspect of his work, and he believed that popular melodies lost their meaning and charm when adopting the robes of classical music.

Within this panorama of undeniable development for Basque music, the Spanish Civil War in the South and the Second World War in the North resulted in a severe blow to its progress. In the South, most of the important musical figures were forced to flee the country, but later returned, little by little. These traumatic events were easier to overcome for some individuals, like Sorozabal, who was forced to abandon his position as conductor of the Madrid Symphony Orchestra. Others, meanwhile, such as Fernando Remacha, gave up composing for a long time as a result of the civil war.

Therefore the immediate post-civil war years were obviously very complicated, with a complete lack of resources, continuing political problems and (especially at the beginning) an authoritarian regime aesthetic. Following the Second World War, Spain shut down completely to the outside world in a conservative environment hostile to any avant-garde developments. In this context, Jesus Guridi became a key figure while he was teaching at the Madrid Conservatory. He won the Spanish National Award for music for his *Diez melodías vascas* (Ten Basque Melodies), whose brilliant orchestration would not have been unworthy of Rimsky-Korsakov or Ravel and is often still played today as part of the international orchestral repertoire. Religious music was still important in the Basque Country during this time. This was an era when religious devotion helped ease the return of so many people linked to Basque nationalism who had gone into exile. In the sense, the figure of Nemesio Otaño, who occupied various important musical positions in the Franco regime during the immediate post-civil war years, was very important. Similarly, the much more innovative Father Medina was likewise crucial. Following the Papal directives of the *motu proprio*



Agustin Gonzalez Azilu



Luis de Pablo

tean aipagarriena *Zigor* opera da, 1960ko hamarkadan estreinatu zena. Emiliana Zubeldia musikagilea ez da hain ezaguna izan orain dela gutxi arte; Mexikora joan zen 1937an, eta musika-konposizioan zein pedagogian lan handia egin zuen han.

Abangoardiako musikan, XX. mendearen bigarren erdialdean estatu espainiarrean zailtasunak zeuden arren, musikagile euskaldun handi batzuk izan ziren, nazioartean erreferentziazkoak izan zirenak eta gaur ere hala izaten jarraitzen dutenak: Karmelo Bernaola da horietako bat, 2002an zendu zena. Batetik, musikari *serio* gisa lan aparta egin zuen eta hainbat sari jaso zituen; teknika atonalak, serrialak, aleatorioak eta konbinatzaileak landu zituen eta baita soinu-espazioa ikertzekoak ere. Bestetik, zinerako eta telebistarako musikagile gisa ere aritu zen, eta esparru horretan ere jaso zituen makina bat sari; *El pícaro*, *Verano azul*, eta *La clave* programa ezagunei, adibidez, berak egin zien musika.

Euskal Herrian gaur egun, Agustin Gonzalez Azilu altsasuarra da abangoardiako musikagilerik garrantzitsuenetako bat. Europako hainbat hiritan osatu zituen bere ikasketak, eta musika-heziketa sendoa du. Fonetika musikan erabiltzeagatik nabarmentzen da Azilu, eta ia beti euskarazkoa hartzen du baliabideztat horretarako. Bestetik, obra instrumental garrantzitsuak ere konposatu ditu hala ganbera-musikarako nola orkestrarako; espresionismoak eragin handia du haren lan guztietan, baina etengabe esperimentatzen du teknikekin eta baliabideekin, eta sortzen duen obra bakoitzari izaera berezia ematen dio, desberdina aurrekoen aldean. Aziluren lanen ezagarraren artean, aipagarria da borondate humanista, gizatasunezkoa, ukitu metafisikoa ere baduena; Juan David Garcia Bacca filosofo nafarraren ideiekin lotura bilatzen du, formalismo experimental hutsetik harago joanez. Aziluren obren artean nabarmentzekoa da *Oratorio panlinguistiko* lana.

Nolanahi ere, nazioartean gaur egun, euskal musikagilerik ezagunena Luis de Pablo da, bilbotarra, 1930ean

elle décide de s'établir au Mexique où elle réalise un travail considérable, tant sur le plan pédagogique qu'en matière de composition musicale.

Dans le domaine de la musique d'avant-garde, malgré les difficultés rencontrées dans l'État espagnol tout au long de la deuxième moitié du XX^e siècle, on trouve plusieurs compositeurs basques qui ont été et demeurent de véritables références internationales. C'est le cas de Carmelo Bernaola, décédé en 2002, qui a su mener de front une carrière plus que respectable et couronnée de succès en tant que musicien *sérieux* (il adopte des techniques atonales, sérielles, aléatoires, combinatoires et d'exploration de l'espace sonore), et une autre carrière, non moins reconnue, en tant qu'auteur de musique pour le cinéma et la télévision, dans des programmes comme *El pícaro*, *Verano azul* ou encore *La clave*.

Au Pays Basque, à l'heure actuelle, l'un des compositeurs les plus remarquables n'est autre qu' Agustin Gonzalez Acilu, originaire d'Altsasu, en Navarre, qui bénéficie, lui aussi, d'une solide formation musicale européenne. Acilu se distingue par son usage musical de la phonétique, presque toujours centré sur la langue basque. Cela ne diminue en rien, cependant, la valeur de ses œuvres instrumentales, tant pour musique de chambre que pour orchestre, dans lesquelles il évolue avec un puissant expressionnisme, pourtant lié à une expérimentation constante de techniques et de moyens, qui rend chaque œuvre distincte de la précédente. De même, ce qui caractérise l'œuvre de cet auteur est une forte volonté humaniste, et même métaphysique, en rapport avec les idées du philosophe navarrais Juan David Garcia Bacca, le plus souvent afin d'aller au-delà d'un pur formalisme expérimental. Parmi ses œuvres majeures, citons son *Oratorio pan-lingüístico* (Oratorio pan-linguistique).

Toutefois, le représentant de la composition musicale basque le plus connu aujourd'hui, au niveau international, est incontestablement Luis de Pablo, né à Bilbao en 1930. Comme bon nombre de compositeurs basques d'avant-garde, son intention d'aller au-delà

("on his own impulse"), he paid special attention to the intelligibility of the text and limited the use of instruments in his work.

